

2020. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2019ko urriaren 18an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2019/12/23. 244. zk.

## ZUHAITZAK MOZTEKO LIZENTZIARI DAGOKION TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

### **1. Artikulua. OINARRIA**

Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauaren 21. artikulua xedatutakoa gogoan izanda, Lurzoruaren Legearen 178. artikulua egurra ebakitzeko lizentzia ematea eskatzen dauela kontuan hartuta eta udal administrazioiko edo titularidadeko bideen erabilera berezia arautzen dauen udal ordenantzak ezarritakoarekin bat etorruta, Bermeoko udalerrian Ordenantza honetan agertzen diran arauak arautuko dabe zuhaitzak mozteko lizentzia emateari jagokoa tasea.

### **2. Artikulua. EGITATE EZARGARRIA**

Tasa honen egitate ezargarria izango da udal jarduera teknikoa edo administratiboa, mendi publiko zein pribatuetan zuhaitzak moztu eta gero bide publikoetatik egurra arrastan eroateko lizentzia emateko garatzen dana.

### **3. Artikulua. SALBUESPENAK**

Legezko xedapenen batean ezarritako salbuespenak eta hobariak baino ez dira izango aplikagarriak.

Dana dala, lizentzia eskatzen dabenean eskatu eta justifikatu beharko dabez.

### **4. Artikulua. SUBJEKTU PASIBOA**

1.- Tasa honen subjektu pasiboak dira lizentzia eskatzen dabenean pertsona fisiko zein juridikoak eta egurra moztu eta arrastan daroenak, beharrezko lizentzia eskatu barik lana burutu dabenean.

2.- Dana dala, subjektu pasiboaren ordezkotzat hartuko dira ebakitze lanetako kontratistak.

3.- Subjektu pasiboakaz solidarioki erantzungo dabe mozketak egiten diren etxaldeetako jabeek edo eukitzailleek, eta baita errentadunek be. Honeen kasuan, halan izango da, euren baiezkotza adierazia edo isilbidezkoagaz eta eskubidea urratu barik egin bada mozketak.

### **5. Artikulua. TASAREN KUOTA**

- 1.- Lizenziako zenbateko finkoa izango da tasaren kuota. **96,43** eurotan ezartzen da.
- 2.- Lizentzia emon jakola interesdunari udalak jakinarazten ez deutson bitartean uko egin leikio honek espresuki eskabideari, eta, orduan, lizentzia hori emotean ordaindu behar izango ebanaren % 50ean gutxituko zaio tasa.
- 3.- Ustiaketak kaltetutako baso-pisten, saka-bideen, udal errepideen eta beste elementu komunen egoera egokia bermatzeko fidantzea ipini beharretik kanpo eskatuko da tasea.

## **6. Artikulua. SORTZAPENA**

- 1.- Tasaren sortzapena eta ordaindu beharra lizentzia eskatzen dan momentuan hasten da, edo lizentziarik lortu barik mozketara eta arrastea egiten denean.
- 2.- Sortzen eta likidatzen diren kuotak zuzenean ingresatuta ordainduko dira, Kudeaketa, Diru-bilketa eta Ikuskapen Ordenantzan modalidade honetarako ezarritakoa kontuan izanda.